

Patri, adiskide!

RAMON ETXEZARRETA

Idazlea

Amets militanteak gauzatzen hasia, euskara irakasle ninduen munduak. Harro, edozertarako prest, edozeinen aurrerako pronto. Egun Euskal Herri gaiztoaren giroan mutu, arnasmgabe, beste klandestinitatean poeta den Mikel Arregiren bidez ezagutu nuen Patri Urkizu, poeta eta nobelista orduan. *Berriak* aldizkaria. Gipuzkoako Doktore eta Lizentziatuen kolegioak antolatutako barnetegia Lekarozen. Euskara, poza, parrandak, nahaste alaiak, politika erruz, barkaezineko sasoiak. Orduko arintasunak... ala arinkeriak!

Gerora eginkizun instituzionalen batean, alkate bera, zinegotzi ni, egin genuen topo. Ohiko irribarrea, hizketa leuna. Haurtzaindegien hezkuntza balioa, eta haiek izateko eskubide bitxia, aldarrikatuz elkartu ginen multzoan estatuaren ordezkartzaren baten atarian. Mehatxatua zegoela esan zidan bere irribarre makurraren pean. Mehatxatua? Nork, nolatan? Polimiliek, polimiliek egin zuten mehatxu estatuko edozein ordezkari edo funtzionarioen kontra. Irribarre batekin erantzun nion, beste hitzik gabe, Lezoko Alkateari, Errenterian katedra zuenari, funtzionario espainiarrari. Isilik, artean ez lotsaz, isiltasun sinpatikoz erantzun izango nion. Zenbat sinpatikotasun gure herrian! Ez dira guztiak oraindik ahitu.

Euskal Idazleen Elkarteko lehendakari eta batzorde hartako idazkari fortunatu ginen. Gordintasunean ume jarraitzen genuen, bilera, afaritxoa, bilera, beste mokadutxo bat, kantak beti, kanta alaiak, tristeak, umoretsuak, euskaldunak beti, Patriren ahots zuberotarra nabarmen beti, *Maitea nun...* Euskal literaturaren gora nahia, gobernuarekiko lantzak, irakurketak, ustezko liburu politikak, euskarak eta euskara, katalanen bizkar barre, BEZaz arduratzen omen ziren, elkarri kobratzen zizkioten komisiok eta gainera, hau ere!, emazteekin joaten ziren elkarretaratzeetara, xelebreak gizonak. Galegoek, euskaldunen miresle, fuerte jotzeko eskatzen zuten.

Galeusca-tako batean, Santiagon ospatzen ziren, lehendakaria eta idazkaria bidali gintuzten egun pare bat lehenago zirtzil teknikoak «behar bezala» lotu, itxi eta topaketa ongi prestatzeko. Madridetik Patri eta Donostiatik neu. Ez zen orduan mugikorrik. Lehen hegaldiari Santiago lainotsuan bertan eman zioten etorri zen lekura bueltatzeko agindua. Ordu batzuk beranduago altxa zen hegaldiari berdina egin zioten. Hotela eman zieten bidaiariei Madriden. Idazle

galegoek Coruñaako alkate Paco Vázquezek Santiago eta Vigorekin zeukan puja pertsonalarekin lotzen zuten guztia.

Biharamunean berriro abioia, hegaldia, lainoa eta azken itzulera Madridera. Azkenean autobusetan sartu zituzten Santiagon lur hartu ezin zuten bidaiari taldea eta, ordu luze mordoaren ondoren, iritsi ziren azkenik erromesaldia ezin luzeagoaren amaierara. Gero eta baldintza ziurragoak zituen urte hartako Galeuscak. Kax-kax, xuabe, jo zuen hoteleko gelaren atea, modu telegrafikoan joan etorrien laburpena egin eta, ohi zuen doinu mantsoan, esan zidan:

—Iberia! Ez dago eskubiderik.

Hala uxatu zituen haserre eta erretxin guztiak, eta ez zuen kontuaz txintik gehiago atera. Nire harrimenerako, ezer gerta ez balitzaio bezala heldu zion eginkizunari. Horixe zen Patri, horixe bere deskripzio perfektua. Haserre eutsi, beretzat gorde, inori txarrik ez pasa eta egonarria irmo boladarik bortitzenen aurrean ere.

Lehendakari eginkizunez gain izan zuen ordukoan beste lanik. Nobela historikoa oinarri eta gai, euskal idazleei zegokien ponentea eta hizlaria izan zen. Abisatua zegoen arren, izateko laburra, nahiz eta estu sartzeko denbora mugetan, ez zegoela guztia eta dena xehetasunez gainezka esan beharrik, gainera euskal literaturaren historiak ez zuela horrenbestearainoko ematen. Ez zen isildu ez eta txalopean ere. Bere lanari heltzen zionean saioa, nobela, historia, edozein ikerketa, euskara oro har ez zuen neurrik, ez denborarenik, ez ekonomiarenik, gutxiago ahaleginaren errentagarritasunarenik.

Galeusca arrakastatsu, nola ez!, haietako okerreana, eta Patriren beste neurri eta ezaugarri bat izan zen, niretzat behintzat. Santiagoko aireportuan ez nintzen kapaz izan nire poltsiko, poltsa, zorro eta maletetatik zegokidan bidai txartela ateratzeko. Elkarteko etxekoandreak, ardura muzin bat ezkutatu ezinik, ordaintzeko neuretik agindu zidan, saiatuko zela eta etxeratu ondorean konpontzen. Etsita iritsi nintzen, baina handik egun bira Patrik jo zidan telefonoa:

—Ramon, lasai —ez nekien zergatik egon behar nuen urduri—. Zure bidaia-txartela azaldu da. Hemen daukat nik.

Paper zaharrei adina zaletasun zien ez hain zaharrei ere eta, aurkikuntza historiko bat legez, hoteleko gelan harrapatu zituen paperki guztiak sartu zituen bere bide-zorro eta fardeletan, nire hegazkinerako txartela tarteko. Banuen lasaitzeko motiborik.

Bidaia-txartela bezala euskarazko edozer jasotzen zuen, izan paper arteko piztia. Eta hala egin genuen bizi osorako adiskide lotura, paper bidez, letra bidez, hizkuntza bidez. Ez zuen, gure arteko askok bezala, beste hizkuntzekiko gorroto edo higuinik, Madrident eta Salamancan erdalduna, Parisen eta Lyonon frantsesa eta hemen hauetan euskaldun irmoa, irribarretsua beti, irribarretsu eta musika klasikoaren zalea.

Betirako egin ginen adiskide, geure eginkizun txiki eta handietan partaide betirako. Guztia partekatzeko joera zuen, idazkiak, proiektuak, argitarapenak... adiskideon eskuartean eta iritzira jartzeko ohiturarik ez zuen inoiz galdu, nahiz

eta ezentzunarena egiten ere ongi asmatzen zuen. Antzerki mota guztien historia ezberdinak, bertsolaritzarenak, euskal literaturarenak. Nekegabe bultzatu zituen, UNEDek eskaini zion aukeratik, konta ezin ahala publikazio. Guztiak jartzen zizkigun eskura nahiz eta, sarritan, euskararen giroetatik oihartzun handirik ez entzun. Inoiz ez zen nekatuko paper zaharrak berreskuratzen, bilketa tematikoak egiten, literatur mintegiak zuzendu eta bultzatzen, euskal literaturaren zokorik galduenetan murgiltzen. Ez zion horrek denborarik kentzen gu guztionak, eta gainerakoenak, irakurri eta jarraitzeko, ezerk ihes egiten bazion berreskuratzea eskatzen zizun. Inoiz ez zitzaigun faltako bestea zuten iritzia. Tristurak eta oroimen ez hain gozoak ere partekatzen zizkigun baina inoiz mendeku gogo edo asmorik txikiena erakutsi gabe.

Gaitzak jo zigun, oinazez mozkortu zitzaigun, baina ez zuen inoiz etsi, argialetxe oso bat gutxi zuen zeuzkan proiektu guztietarako. Hasiberri baten ilusioa isurtzen zuen lantegi guztietan. Bere memorien liburua, bere Lezo, bere, bai eta ere, Donostia. Nobelagintzari ere indarrez heltzen zion, osasunaren eta erremedioen ondorioen mugekin noski, baina atsedetik gabe. Kaxoian utzi zituen Elkanorena, Idiakezena (ipuin lehenbizi, nobela gero), Martin Arrizubieta apaiz ikusgarriarena. Oihenart ez zuen burutik kendu, urkamendiko baladak ere bilduta utzi zituen. Azken arnasara arte euskal antzerkia mundukoan eta mundukoa Euskal Herrikoan lotu eta txertatuta ikusi nahi izan zituen, horretarako Munduko Arte eszenikoen historia lardaska bizi pizkorrean idatziz. Ez zigun tarterik uzten, ospitalea, anbulategia, etxea, oinazeak guztiak inprimagailutik aterako balira bezala. Bere zaletasunetan eta maitasunetan segundu bateko etsipenik sentitu gabe joan zen (Euskaltzaindiaren barkaziorik gabe baina).

Ezin ahaztu etxeko sukaldean ahots goran irakurrita zeuzkan literaturaren klasikoen berrehun izenburutik gorako zerrenda, beti eramaten zuen papertxoa poltsikoan, nire beste adiskide hark txispatzen zenean ateratzen zigun *En mi viejo* San Juanena bezala.

Egun, eguzki goizetan, neure gosaria eta irakurgaiak mahaian zabaltzen ditudanean ikusi egiten dut, ohi zuen bezala, kale kantoitik nire mahaira azaltzen, aurrean eseritzen, begirada argiz, irribarrez, hitz gabe askotan, neuri begira. Esanaz bezala: Zer deritzozu? Esatekorik ez? Jakin duzu...? Hura ere... han ere... idatzi... irakurri... axola ez zaigunik ba al da ba? Aldekoea eta Ramonekin hitz egin al duzu? Mikelekin eta Inazioarekin? Joxeanekin? Antton edo Josurekin? Intxaurrendietarekin...

—Ederra egin diguk Patrixio!